

Azken urteetako sagar uztarik handiena

Herrialde guztietan sagar asko dago “eta 10 milioi kilotik gora batzea espero da”, halaxe azaldu du Euskal Sagardoa jatorri deiturak. 2017koa hortaz, azken urteetako uztarik emankorrena izango da.

Euskal Sagardoa jatorri deitura bigarren uztaren aurrean da, eta sektoreko teknikariek diotenez “historikoa” izango da kopuruan eta aurreratua heldutasunari dagokionean. Zenbait sagastitan hasiak dira lehenengo sagarrak biltzen, eta irailean eta urriko lehen asteetan biltzeko moduan izango dira sagarrak gehienak.

Euskal Sagardoa jatorri deiturak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagastia eta sagardogileak biltzen ditu eta beraz, “tokiaren eta sagar moten arabera aldea izan liteke heldutasunean, baina orokorrean leku gehienetan dator uztia aurreratua aurreko urteekin alderatuta”, Euskal Sagardoa elkarteak kideek aditzera eman dutenez.

10 milioi kilo

Kopuruz, sagar asko dute sagarrondok aurten eta azken asteetako euriek izugarri handitu dute alea. Hori dela eta aurreikusitako 10 milioi kilo baino gehiago izango direla aurten Euskal Herrian sagardo sagarrean.

Euskal Sagardora bideratutako sagarrak Kontseilu Arautzaileak zehaztutako kalitate baldintzak bete behar ditu eta sagastiek Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako Kontseilu Arautzailean izena emanda egon behar dute. Oraindik goizegi da Euskal Sagardoa jatorri deitura marka pean zenbat sagardo egingo den zehazteko, tolaiek martxan baitaude.

Euskal Sagardoa markan Euskadiko sagargileen eta sa-



Uztia aurreratua dator azken urteekin alderatuta eta zenbait sagastietan hasiak dira sagarra biltzen.

'EUSKAL SAGARDOA'

“Kopuruz, sagar asko dute sagarrondok aurten eta azken asteetako euriek izugarri handitu dute alea”

gardogileen elkarte guztiek dute ordezkaritza eta hauxe dute helburu nagusizat: eus-

kal sagardoari eta Euskal Sagardoa egiteko sagarrari balio handiagoko ematea, sektore jasagarri bat indartu eta etorkizunerako oinarriak sendo jartzeko.

Euskal Sagardoa jatorri deitura landu duten elkarteak

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagar eta sagardo elkarte guztiak ari dira parte hartzen jatorri deitura berriaren lanketan, sektorea %100 ordezkatzuz: Gi-

puzkoako Sagardogileen Elkartea, Sagardo Mahaia Elkartea, Bizkaiko Sagardogileen Elkartea, Sagar Uztia Elkartea, Arabako Sagarzale eta Sagardogileen Elkartea, Fruitel Sagarzale Elkartea eta Bialka Sagarzaleen Elkartea.

115 sagar mota

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 115 sagar mota dira Euskal Sagardoa izendapenean onartutako sagar barietateak.

Azken helburua: “Beharrezko den sagar guztia bertan sortzea”

2016ko uztan, hiru herrialdeetako 200 hektareatik gora sagasti zeuden izen emanda eta 36 sagardotegik egin zuten jatorri-deiturako zigilua eraman ahal izango duen sagardoa. “2017an gehiago izango dira bai sagastia eta baita sagardotegiak ere, datu zehatzak abenduan azalduko baditugu ere”, Euskal Sagardoa-tik aditzera eman dutenez.

Guztira, Euskal Sagardoa jatorri deiturara bideratuta 1.320.000 litro sagardo egin ziren 2016ko uztan, Euskadiko produkzioaren %12 inguru.

Konpromisoa eta helburua

Jatorri deiturara atxikitako sagargile eta sagardogileek konpromisoa hartu dute geroztik eta bertako sagar gehiago

erabiltzeko. Azken helburua, urte batzuen buruan, Euskal Herrian beharrezko den sagar guztia bertan sortzea litzateke.

Identifikazioa

Euskal Sagardoa botilak, sagarra duen kapsula edo lepoko sagarra du berme-zigilua; izan ere, horrek bermatzen du indarrean dagoen araudian zehaztutakoa betetzen duela.